



2024



bizkaiko berrikuntza
behatokia
observatorio de la innovación
de bizkaia

BERRIKUNTZA BIZKAIKO ENPRESETAN

Laburpen exekutiboa

SARRERA

barrixe - Bizkaiko Berrikuntzaren Behatokiak “norabidea, berrikuntzak Bizkaiko enpresetan duen garrantziari buruzko inkesta” egiten du 2007tik, eta bere helburua da aztertzea Bizkaiko enpresek nolako harremana duten berrikuntzarekin. Hala, enpresa berritzaile eta ez berritzaileen profil bat finkatzen da, eta horrek aukera ematen digu Bizkaiko enpresek berrikuntzarekiko duten jokabidea ezagutzeko.

Enpresa berritzaileei dagokienez, txostenak aukera ematen du, besteak beste:

- Hobeto finkatzeko enpresa berritzaileen profila
- Identifikatzeko berrikuntzaren zein arlotan ari diren laneanenpresak
- berritzera bultzatu zituzten arrazoiak zehaztea
- Detektatzeko zeintzuk izan diren enpresek gauzatu dituzten berrikuntzen ondorioak eta jakiteko zein neurritaraino bete diren hasierako espektatibak

Enpresa ez berritzaileei dagokienez, txostenak aukera ematen du, besteak beste:

- Hobeto ezagutzeko jarduera berritzailearik garatu ez duten enpresen profila, eta berrikuntzatik hurbilago edo urrunago kokatzeko, harekiko duten harremanaren arabera
- Hobeto ezagutzeko berrikuntzara jauzi egiteko premiak eta balazta efektua eragiten duten elementuak

Horretaz guztiaz gain, norabidea txostena baliagarri da **Bizkaiko Berrikuntzaren Indizea** egiteko; adierazle sintetiko bat da, zeinak neurtzen baitu zein gertu edo urrun dauden Bizkaiko enpresak berrikuntza euren jardueran sistematizatzen. Adierazle hori eraikitzeke oinarritzat hartzen dira enpresek galdetegian emandako erantzunak, eta hala, puntu gehiago edo gutxiago lortzen dituzte balizko jarduera berritzailearen sistematizazio-mailaren arabera.

DEFINIZIOAK

Norabidea 2024 egiteko kontuan hartu dira Osloko 2018ko Eskuliburuari azken bertsioaren definizioak, zeintzuetan kendu egin zen berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren arteko bereizketa eta ezarri zen berrikuntzak produktuan edota prozesuan egiten direla.

Aldaketa horiei jarraiki, hauek dira aurtengo txosteneko definizioak:

- **Berrikuntza** bat da produktu edo negozio-prozesu berri edo hobetu bat (edo bien konbinazio bat), establezimenduak lehenago zeuzkan produktu edo negozio-prozesuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena edo establezimenduan inplementatu dena.
 - **Produktuko berrikuntza** da ondasun edo zerbitzu berri edo hobetu bat, enpresak lehenago eskaintzen zituen ondasun edo zerbitzuetatik oso desberdina dena eta merkatuan sartu dena.
 - **Prozesuko berrikuntza** da negozio-prozesu berri edo hobetu bat negozioaren funtzio batentzat edo gehiagorentzat, establezimenduak lehenago erabiltzen zuen prozesutik oso desberdina dena eta dagoeneko inplementatu dena.
- 

EGOERAREN BALORAZIOA ETA ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK

2022ko Norabidean, Bizkaiko enpresa-sarearen jarduera berritzaileari buruzko datuak beheranzkoak ziren. 2023ko Norabidean, ordea, iradoki egiten zen susperraldirako zantzuak zeudela, aztertutako adierazle askotan lortutako datu onek adierazten zuten bezala, nahiz eta testuinguru ekonomikoa hegakorra zen. Gainera, haietako batzuen igoera handia izan da; esate baterako, abian jarritako berrikuntzen ondorioz lortutako eragin handiaren edo mozkin handien inguruko pertzepzioa eta berritzaileak ez diren enpresek berrikuntzarekin bat egiteko daukaten asmoa. Bestetik, 2024ko Norabidean adierazten denez, gaur egun egonkortasuna da nagusi, eta, bertan, iaz bezala, hamar enpresa parte-hartzailetatik lauk baieztatu dute nolabaiteko berrikuntza ezarri eta sendotu dutela. Hartara, 2019tik bigarren urtez jarraian antzematen genuen jaitsiera egonkortu da.

Bigarren urtez jarraian hazi den datua 2020tik 2023ra uneren batean berrikuntza-jarduerak garatu dituzten enpresen kopurua da, %51tik %53,3ra igo delako. Berrikuntzak etengabe ezartzen dituzten enpresen ehunekoa, ordea, %25,5ekoa izan da, “muin nagusia” direla kontuan hartuta.

Bigarren urtez jarraian ere, beste elementu bat izan da gora egin duena, **prozesu berriak garatzea helburu nagusi izan duten enpresen** kopurua, alegia, %32,8tik **%35,3ra** igo delako 2023an. Horiek horrela, berriro ere, enpresen jarduera berritzaileak xede nagusi daukan arloa izan denez, zeresan handia eduki du Bizkaiko jardun lehiakorrean, lurraldeko ekonomian espezializazio industrial handia dago-eta. **“Produktuan edota zerbitzuan berrikuntzak”** egiten dituzten enpresen ehunekoa, ordea, **%24,0koa** izan denez, datu hori egonkorra izan da.

Bizkaiko Berrikuntza Indizeak inkesta hau egiteko aukera eskaintzen du, eta, horrez gain, enpresetako jarduera berritzailearen sistematizazio-maila ere neurtzen du. Bertan antzematen denez, hain zuzen ere, oso fase txikietan dauden enpresen kopuruak bere horretan jarraitzen du, nahiz eta aurretiazko olatuan nabarmen jaitsi zen. Aldi berean, indize handienak dituzten enpresen kopurua berriro hazi denez (%26,8tik %28,1era), berrikuntza euren enpresa-jardunean helburu estrategiko moduan sartzten dutenak dira, eta are gehiago sistematizatzen dute euren jarduera berritzailea.

Jarduera berritzailearen sistematizazioaren edo arrakasta-pertzepzioaren mailaren beste adierazle bat, hain zuzen ere, berriro ondorenezarritako aldaketen zein berritasunen ondorioz “eragin handia” edo mozkin handia lortu dutela uste duten enpresen datua da.

Izan ere, hamar enpresatik ia-ia zortzik (**%76,5**) “eragin handikotzat” jotako mozkina lortu dute euren jarduera berritzailearen ondorioz. **Datu horrek, gainera, maila handietan eta egonkor jarraitu du, iaz edukitako igoera handiaren ondoren, orduan 6,3 puntu portzentual igo zela kontuan hartuta.**

Berrikuntzek enpresetan izan duten eragin handiak bere horretan iraun duenez, berbera gertatu da **arrakasta-pertzepzioarekin, horrelako prozesuak abian jarri ondoren, %77,2tik %78,3ra igo delako. Gainera, horrelaxe jarraitu du, maila handietan, alegia**(serie historikoko bigarren datu handiena).

Berritzaileak ez diren enpresen artean, berriro ere, **“nahitako distantziaren” arrakala murriztu da**, hau da, Bizkaiko enpresek berrikuntza-prozesuak behar ez dituztela uste duten enpresen kopurua. Datu hori, hain zuzen ere, **4,8 puntu portzentual** jaitsi denez, badirudi jarrerak ez direla hain erabatekoak izan merkatuetan hegakortasun ezin handiagoa nagusi izan den epealdian.

Hona hemen adierazgarriak diren beste gai batzuk eta, berrikuntzari dagokionez, Bizkaikoen presen etorkizunean zeresana edukidezaketenak:

- Enpresa berritzaileen kopuruari dagokionez, azken urteko ehunekoa aurreko urtekoa bezalakoa den arren (%41,1), badirudi **enpresek berrikuntzarekin lotutako proiektu gehiago jarri dituztela abian**. Izan ere, hiru proiektutan edo gehiagotan lan egiten duten edo lan egin duten enpresen ehunekoa %8,9tik %11,2ra igo da. Gainera, baliteke proiektu handiak ez izatea, ekoizpen-teknologia berriak eta enpresako zenbait arlotako digitalizazioa baizik.

- **Lehenaldiz, enpresa berritzaileek baieztatu egin dute berrikuntza integratu dutela euren enpresako dinamikan nahiz helburuetan** (%57,2, aurreko urteko %43ren aldean). Hori dela eta, berrikuntzaren bultzadaren faktore nagusia da (merkatuaren, lehiakideen edo bezeroen aurretik), eta, horren ondorioz, badirudi jarduera berritzailea enpresaren kulturaren parte dela eta ez dela unean uneko egitate isolatua.

- **Modu nabarian igo da testuinguru ekonomikoa edonolakoa dela ere enpresa-sarean berrikuntza ezarri beharra dagoela uste dutenen kopurua**, %37,8tik %49,5era igo da-eta.

- Olatu honetan, **kontsultatutako hamar enpresatik hiruk laguntzaren edo dirulaguntzaren bat jaso dute**, eta, eurek adierazi dutenez, euren eraldaketa digitalerako erabili dute, batez ere. Datu hori azken bost urteotako handiena izan da, hain zuzen ere.

- **Enpresen arteko lankidetzak**, baina, batez ere, sektore bereko enpresen artekoa, hazi **egin da zenbait urtez egonkorra izan ondoren**, jakintza-arloko eta merkatuaren beraren premiagatik.


Informazio hori kontuan hartuta, etorkizuna aurreikustea zaila bada ere, lortutako erantzunen arabera badirudi Bizkaiko enpresek berrikuntzaren inguruan duten jokabideak bere horretan dirauela. Izan ere, lortutako ondorioak eta egindako berrikuntzek enpresan izan duten eragin handia kontuan hartuta, enpresek argiago ikusiko dute berrikuntza bera dela jarraitu beharreko bidea ekonomia aurreratu eta lehiakorrean.

ENPRESAK BERRITZAILEAK

Bizkaiko 10 enpresatatik 4k


EKIMEN BERRITZAILEAK EGIN DITUZTE 2023. URTEAN. DATUA 2022KOAREN ANTZEKOIA IZAN DENEZ, 2019. URTETIK ANTZEMANDAKO JAITSIERA EGONKORTU DABIGARREN URTEZ.

Gainera, Bizkaiko enpresen %53,3k aitortu egin dute jarduera berritzaileren bat garatu dutela azken lau urteotan, etengabe edo aldizka. Hori dela eta, berrikuntzako partaidetzak gora egin du epealdi luzean, 2,3 puntu portzentual hazi da-eta.



IA-IA EZ DAGO ALDAKETARIK BERRITZEN DUTEN ENPRESEN KOPURUAN

BESTEALDE, HAMAR ENPRESATIK LAUEK SISTEMATIKOKI BERRITU DUTE URTEETAN ZEHAR.




BERRIKUNTZA ESPARRUAK

Produktu eta zerbitzuetako berrikuntzak eta prozesuetako berrikuntzak gora egin badute ere, azken hori indar handiagoz igo da, ekoizpen-arloko teknologia berrien ezarpena bultzatu delako eraldaketa digitalaren sustapenaren esparruan

BERRIKUNTZA PRODUKTU EDOTA ZERBITZUETAN



BERRIKUNTZA PROZESUETAN



BERRIKUNTZA PROZESUETAN



BERRIKUNTZA MARKETIN EDOTA MERKATURATZE




ANTOLAKUNTZAKO BERRIKUNTZA




JARDUERA BERRITZAILEAREN ARRAKASTA MAILA


Jarduera berritzailearen arrakastaren inguruko pertzepzioa (%78,3) handitu egin da iazkoaren aldean. Beraz, serie historikoko bigarren datu handiena izan da pandemiaren garaian gertatutako aldaketen arrakasta neurtu zuen barometroaren atzetik, orduan %78,8koa zen-eta. Enpresa berritzaileen %78,3ek aski edo guztiz bete dituzte beren helburu edo igurikapenak




INDUSTRIA ETA ENERGIA



ERAIKUNTZA





MERKATARITZA ETA KONPONKETA



ZERBITZUAK



JARDUERA BERRITZAILEAREN ERAGINAK



Hamar enpresatatik ia-ia zortzik (%76,5) “eragin handikoa” omen den mozkina lortu dute euren jarduera berritzailearen ondorioz. Horrela, 2022ko igoyerari eutsi diote, orduan 2021eko %69,9tik %76,2ra igo zela kontuan hartuta.

Berrikuntzan parte hartu duten enpresa guztiek (% 93,6) inplementazioaren ondorio edo arrastoren bat hauteman dute, txikia, ertaina edo handia izan.

HONAKO HAUETAN ERAGINA IZAN DUTEN ENPRESEN EHUNEKOA:

ONDASUN EDO ZERBITZUEN
KALITATE HANDIAGOA



% 74,9

LAN GIROA ETA PRODUKTIBITA-
TEA HOBETZEA



% 62,5

MALGUTASUN HANDIAGOA PRODUKZIOAN
EDO ZERBITZUAK EMATEKO ORDUAN



% 68,7

PRODUKTU- EDO ZERBITZU-SOR-
TA ZABALTZEA



% 61,8

ERANTZUN EPEAK MURRIZTEA
BEZEROEN PREMIEI EGOKITZEKO



% 68,6

MERKATU BERRIETARA
SARTZEA



% 58,3

INFORMAZIO-TRUKEA
HOBETZEA



% 67,9

ENPLEGU
SORKUNTZA



% 53,9

ARAUDIETAKO BALDINTZAK
BETETZEA



% 65,2

INGURUMEN-INPAKTU
TXIKIAGOA



% 48,0

FAKTURAZIOA / MARJINAK /
IRABAZIAK HANDITZEA



% 63,5

KOSTU TXIKIAGOAK PRODUZITUT-
AKO UNITATE BAKOITZEKO



% 47,3

ENPRESETAKO BERRIKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Olatu horretan, Bizkaiko enpresen jarduera berritzailearen hiru adierazlek egin dute gora; esate baterako, ezarritako berrikuntzen mozkinak euren kudeaketaren kontabilitatean islatu ahal izatea edo enpresek eurek berrikuntzak egitea, testuinguru ekonomikoa edonolakoa dela ere. Dena dela, indartsu igodiren adierazleen artean, egoera ekonomikoa gorabehera berrikuntzaren inguruan zehaztutako helburuak murriztu ez dituzten enpresen kopurua nabarmentzen da, batik bat. Izan ere, halaxe adierazi dute enpresen %80k, 2022an berori zioten enpresen %60ren aldean.

2023
% 17,9

2022
% 18,4

Enpresen %17,9ek partida espezifiko bat dute aurrekontuan berrikuntza jardueretarako

2022
% 14,9

2023
% 13,6

Enpresen %13,6k neurriak hartzen ditu asmakizunak, berrikuntzak edo ezagutzak babesteko

2023
% 24,0

2022
% 19,5

Enpresen %24ek kudeaketaren kontabilitatean identifikatu ditzakete inplementatutako berrikuntzen onurak

2022
% 60,0

2023
% 83,0

Enpresen %83ek ez ditu murriztu berrikuntzako helburuak egoera ekonomikoak hala bultzatuta

2023
% 12,6

2022
% 15,3

Enpresen %12,6ek baditu departamendu teknikoa, I+G+B-ko departamendua edo berrikuntzan jarduteko langileak

2022
% 37,8


2023
% 49,5

Enpresen %49,5ek berrikuntza prozesuak egiten dituzte, edozein dela ere testuinguru ekonomiko


BIZKAIKO BERRIKUNTZAREN INDIZEA

Bizkaiko Berrikuntzaren Indizea sintesi-indize bat da, bere bitartez neurtzeko jarduera berritzailearen sistematizazio-gradua enpresa-jardunaren barruan.

2023an, berriro hazi dira indize handienei eutsi dieten enpresak, horren ondorioz berrikuntza kontuan hartu dutelako euren helburu estrategikoen artean eta jarduera berritzaileagehiago sistematizatu dutelako euren enpresa-jardunean.




BERRIKUNTZA MAILA OSO ALTUA DUTEN ENPRESEN PROFILA



ENPRESA EZ-BERRITZAILEAK

ENPRESEN %.58,9EK EZ DU INOLAKO BERRIKUNTZA JARDUERAR-
IK EGIN 2023AN.



BERRIKUNTZARAKO OZTOPOAK

MERKATUAREN ETA LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO PREMI-
AREN EPE LABURREKO IKUSPEGIA DA.

Aurreko ekitaldian enpresek berrikuntza ez ezartzeko izan dituzten arrazoiak edo zergatiak kontuan hartuta, agerian jartzen da merkatuak zeresan handia izan duela, aurreko urtean baino askoz gehiago geldiarazi dituelako Bizkaiko enpresen ustezko ekimenak. Izan ere, enpresen %47,6k adierazi dutenez, merkatuak jarritako oztopoak izan dira arrazoi nagusia, eta datu hori 6 puntu portzental igo da 2022koaren aldean. Gainera, berrikuntza ez ezartzeko zergati nagusia da oraindik, sektorea eta enpresaren tamaina edonolakoak direla ere.

Kultura berritzaile eza
Ez dago berritzeko premiarik

% 18,1



% 22,9

Merkatu mailako oztopoak
Ez dago ondasun

% 47,6



% 41,2

finantzaketa arloko zailtasunak
Berrikuntzaren kostua egoera
ekonomiko ziurgabea

% 18,0



% 23,7

■ 2023
■ 2022

Antolaketa-
arrazoiak

% 14,4



% 11,8

Empresas que no han realizado acciones
innovadoras y dicen que no tienen necesidad.

% 25




% 21,3


BERRIKUNTZAK EGITEKO LAGUNTZA MOTAK

2022an, modu nabarian igo zen berrikuntza ezartzeko orduan nolabaiteko laguntza eduki beharko luketela aipatzen duten enpresen kopurua, %74tik %81,5era igo zelako. 2023an ere, berriro igo da indartsu, laguntzak behar dituztela dioten enpresen kopurua %89,4koa izan delako. Haien artean, gainera, laguntza ekonomikoa da aipatuena.


2023 2022




LAGUNTZA EKONOMIKOA, DIRU-LAGUNTZAK, FINANTZAKETA...



BERRIKUNTZARAKO ORIENTAZIOA, AHOLKULARITZA...



LANGILEEN GAITASUNEN HOBEKUNTZA (PRESTAKUNTZA, LANGILE BERRIAK)




EZ DUTE LAGUNTZARIK BEHAR, EZ DUTE BERRITZEKO PREMIARIK...

HURRENGO 3 URTEETARAKO ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENAK


Bizkaiko enpresa berritzaileek etorkizunarekiko adierazitako asmoak balio positiboetan jarraitzen du, nahiz eta pandemiaren garaitik etengabeko beherakada izan den.




BERRIKUNTZA PRODUKTU ETA ZERBITZUE-




BERRIKUNTZA PROZESUETAN




BERRIKUNTZA MARKETIN ETA MERKATURATZE AR-



ANTOLAKUNTZAKO BERRIKUNTZA



BERRIKUNTZA LANKIDETZAN




ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA


Lankidetzan aritzen diren enpresen kopuruak gora egin du, baina are bizitasun handiagoz igo da berritzaileak izan ez arren lankidetzan aritzen diren enpresen ehunekoa, %19,4tik %24,9ra igo delako 2023an.

Lankidetzak hori norekin garatzen duten galdetzen zaienean, euren sektoreko beste enpresa batzuekin garatzen dutela dioten kopurua (%73,6) nabarmentzen da, batez ere. Era berean, bezeroekin edo zentro teknologikoekin lankidetzan aritzen direla dioten enpresen kopurua ere igo da nabarmen.


2023 2022



NOREKIN



ZERTARAKO



LANKIDETZAN JARDUTEKO ARRAZOIAK:

% 41,2



Merkatukoak

% 38,3



Ekonomikoak edo
kostukoak

% 44,7



Ezagutzarekin
lotuak

% 21,9



Antolakuntzakoak

RAZONES PARA NO COPERAR

% 85,1



Ez dago premiarik

% 5,7



Ezagutza ez da
partekatzen

% 2,5



Antolakuntza
zurruna

% 4,1



Bazkideak
aurkitzeko zail-
tasunak

% 2,2



Ez dute planteatu.

% 2,0



Kostu ekonomiko
handia



[INNOVEDIA](#)
[BALIABIDEAK](#)
[TXOSTENAK](#)
[JOERAK](#)
[LAGUNTZAK](#)
[BOLETINA](#)
[ES](#)

barrixe – Bizkaiko Berrikuntza Behatokia, buruzko zure erreferentziatzeko web orria.
Hemen aurkituko dituzu:

- Bizkaiko berrikuntzari buruzko txostenak.
- Albiste eta Jaera Berrienak.
- Laguntzak eta Diru-laguntzak.

Harpidetu gure buletinera

Ezagutu +

Ekimenaren sustatzaileak:




NABARMENDUAK

NABARMENDUTAKO TXOSTENA

norabidea 2023

Berrikuntzak Bizkaiko Enprezetan

“Enpresen % 60k ez ditu berrikuntza-helburuak murriztu egoera ekonomikoagatik”

Kontsultatu

Handitzeko +

ADIMEN ARTIFIZIALA

Adimen artifizialak jokoaren arauak aldatu ditu

Laguntzak

Handitzeko +

DIGITALIZAZIO

Trantsizio Digitala Dirulaguntza-Programa - 2024

Laguntzak

Handitzeko +


BERRIKUNTZA

Teknologia Transferentzia Dirulaguntza-Programa - 2024

Laguntzak

Handitzeko +

HARPIDETU GURE BULETINERA





bizkaiko berrikuntza behatokia
observatorio de la innovación de bizkaia



Harpidetu gure buletinera. Aukera izango duzu gure sare sozialekin bat egiteko eta berrikuntzari buruzko argitalpen guztiak partekatze-ko. Horrela, hurbilago jarraituko dituzu Barrixe-n berrikuntzari buruz argitaratzen diren albiste guztiak.

Jakizu zein

den berrikuntza-egoera

konsultan gure web



Eskungarri dagoen txosten luseago baten bertsio labur-
tua:

www.barrixe.com